

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

6437

AGINDUA, 2009ko azaroaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Helduen Hezkuntzako eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetan Zereginak Ikasteko Ikasgeletan lanpostuak betetzeko deialdiak iragartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeko 23. artikulua ezarritakoaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxeetan lanpostu hutsak daudenez, Sail honek deialdietarako iragarpena egin du.

#### DEIALDIAK

1.- Deialdia, ikastetxe batean behin betiko destinoa eduki eta orain artean betetzen zuten lanpostua ezabatu edo aldatu zaieen maisu-maistrek eta horretarako gaitasunik ez duten maisu-maistrek ikastetxe bereko beste lanpostu batekiko atxikipena eska dezaten, azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak aldatu egin duen uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 6. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2.- Deialdia, alde batetik, azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak aldatutako eta urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko e) idatz-zatiak partzialki indargabetutako 895/1989 Errege Dekretuaren 18. artikuluan, eta bestetik, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriari aipatzen diren egoeretako batean dauden maisu-maistrak beren destinoa herri edo eskualde jakin batean lortzeko lehentasun-eskubidez balia daitezten.

3.- Deialdia, otsailaren 19ko 2/1993 Legeko 23. artikuluan jaso, eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko hezkuntzako irakasleen kidegoarentzako den lekualdatze-lehiaketarako.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6437

ORDEN de 18 de noviembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se anuncian convocatorias para la provisión de puestos de trabajo en Centros públicos de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Educación Especial, Educación de Personas Adultas y Aulas de Aprendizaje de Tareas en Centros públicos de Enseñanzas Medias, dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco y ante la existencia de plazas vacantes en centros dependientes de este Departamento de Educación, Universidades e Investigación se ha dispuesto anunciar las siguientes

#### CONVOCATORIAS

1.- Convocatoria para que las Maestras y Maestros con destino definitivo en un Centro, afectados y afectadas por la supresión o modificación del puesto de trabajo que venían desempeñando y los adscritos y adscritas a un puesto para el que no están habilitados o habilitadas, según lo dispuesto en los artículos 6 y 17 del Real Decreto 895/1989, de 14 de julio, modificado por el Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre, puedan solicitar la adscripción a otro puesto del mismo Centro.

2.- Convocatoria para que las Maestras y Maestros que se encuentren en alguno de los supuestos a que alude el artículo 18 del Real Decreto 895/1989, modificado por Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre y derogado parcialmente en el apartado e) por Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre, y aquellas y aquellos que se contemplan en la disposición adicional décima del Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre, puedan ejercer el derecho preferente a obtener destino en una localidad o zona determinada.

3.- Convocatoria del concurso de traslados previsto en el artículo 23 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Lekualdatze-lehiaketa honetan sartzen diren lanpostuak hauek dira: bat, deialdia argitaratzerakoan hutsik dauden lanpostuak; bi, 2009ko abenduaren 31 baino lehen sortu diren hutsak; eta lehiaketa ebazterakoan sortzen direnak. Horiez gain, derrigorrezko erretiroak direla-eta, 2009-2010 ikasturtea amaitu artean sortzen diren lanpostu hutsak ere gehitu ahal izango dira. Deialdi guztiotan hornituko dira bere garaian zehaztuko diren postu hutsak. Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko lehen Xedapen Iragankorrak, Hezkuntza Sistemako Ordenamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko laugarren Xedapen Iragankorra aplikatzean, ezartzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan behar adinako postu hutseko portzentaje bat gordetzea Maisu/maistren Kidegoko funtzionarioentzat. Horri jarraiki eta hezkuntza-plangintzaren ondoriozko premien arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko lanpostuetara behin betiko atxikita dauden Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioei hutsik dauden lanpostuak eskainiko zaizkie. Hala ere, lanpostu horiek aurrerantzean ere indarrean jarraituko dutela ohartemanda egon beharko da hezkuntzarako plangintza orokorrean.

Lanpostu hutsak definitzeko akats bat gertatzen bada edo lanpostu horren funtzionamendua eskola-plangintzan aurreikusten ez bada, lanpostu huts horiek ezabatuko dira.

Beste herri batzuetako ikastetxeetan dauden lanpostu edo plazak dituzten ikastetxeetan, eskatutako ikastetxera atxikita dauden edozein herritan emango dituzte zerbitzuak horietan destinoa lortzen duten irakasleek.

#### 1.- Berradskripzioko deialdia ikastetxean.

Deialdia, beren behin betiko destinoa ikastetxe batean eduki eta orain arte betetzen zuten lanpostua ezabatu edo aldatzearen eragina jasan duten maisu-maistrek eta azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak aldatu egin duen uztailearen 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 6. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera horretarako gaitu gabe egonik lanpostu bati atxikitakoek ikastetxe bereko beste lanpostu bati atxikitzeko eska dezaten.

Oinarri-arauak ondoren aipatzen direnak dira:

#### I.- Parte-hartzaileak.

**Lehenengoa.**— a) Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute behin betiko zuten lanpostua ezabatu edo aldatzearen eragina jasan duten eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko maisu-maistren kidegokoak diren karrerako funtzionarioek.

En el presente concurso de traslados se convocan además de los puestos vacantes existentes en el momento de hacerse pública la convocatoria, las vacantes que se produzcan hasta el 31 de diciembre de 2009 y las que resulten de la resolución del concurso. Además podrán incluirse aquellas vacantes que se originen como consecuencia de jubilaciones forzosas que se produzcan hasta la finalización del curso 2009-2010. En todas estas convocatorias se proveerán los puestos vacantes que en su momento se determinen. La Disposición Transitoria primera de la Ley Orgánica 2/2006 de 3 de mayo, de Educación, en aplicación de la disposición transitoria cuarta de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General de Sistema Educativo, establece la reserva de un porcentaje suficiente de vacantes en el primer Ciclo de Educación Secundaria Obligatoria para las funcionarias y funcionarios del Cuerpo de Maestras y Maestros. De conformidad con ello y de acuerdo con las necesidades derivadas de la planificación educativa, se ofertarán vacantes a las funcionarias y funcionarios del cuerpo de Maestras y Maestros que estén adscritos y adscritas con carácter definitivo a puestos del Primer Ciclo de Enseñanza Secundaria Obligatoria. Todas ellas siempre que se correspondan a plazas cuyo funcionamiento se encuentre previsto en la planificación general educativa.

Se eliminarán aquellas vacantes anunciadas cuando se produzca un error de definición de las mismas o se trate de una plaza cuyo funcionamiento no se encuentre previsto en la planificación escolar.

En aquellos centros que dispongan de puestos o plazas ubicadas en centros educativos de otras localidades, el personal que obtenga destino en los mismos, prestará servicios en cualquiera de las localidades a las que se encuentran adscritas las plazas del centro solicitado.

#### 1.- Convocatoria de readscripción en el centro.

Convocatoria para que las Maestras y Maestros con destino definitivo en un Centro, afectados y afectadas por supresión o modificación del puesto de trabajo que venían desempeñando y los adscritos y adscritas a un puesto para el que no están habilitados y habilitadas, según lo dispuesto en los artículos 6 y 17 del Real Decreto 895/1989, de 14 de julio, modificado por el Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre, puedan solicitar la adscripción a otro puesto del mismo Centro.

Se regirá por las siguientes bases:

#### I.- Participantes.

**Primera.**— a) Pueden participar en esta convocatoria los funcionarias y funcionarios de carrera del Cuerpo de Maestras y Maestros dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación afectados y afectadas/as por la supresión o modificación del puesto de trabajo que venían desempeñando con carácter definitivo.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aginduen bidez dei egindako atxikipenen ondorioz lanpostua lortu eta horretarako gaitu gabe dauden Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko maisu-maistrek parte hartuko dute, beren borondatez, uztailearen 14ko 895/1989 Errege Dekretuko azken xedapenetatik bigarrenean (bis) jasotako berraxikipen prozesuan; eta hori, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko (urriaren 6ko BOE) gehigarriko xedapenetatik hamargarrenean aurreikusitakoaren arabera. Eurak horretarako gaituta egon eta hizkuntza-eskakizunari buruzko baldintza betetzen duten ikastetxeko lanpostu guztiak adieraziko dira eskabidean.

**Bigarrena.**– Lanpostua galdu edo aldez aurretik aipatutako aginduen bidez dei egindako atxikipenaren ondoren betetze-sistemaren baten bidez beste behin betiko destino bat lortu duten maisu-maistrek ezingo dute parte hartu deialdi honetan.

## II.– Lehentasunak.

**Hirugarrena.**– Bakoitzaren egoerak adieraziko du destinoa lortzeko lehentasuna, I. oinarri-arauko lehenengo arauan zerrendatzen den lehentasun-hurrenkeraren arabera.

**Laugarrena.**– Egoera jakin baten barruan hainbat maisu-maistra badaude, behin betiko lez ikastetxean urterik gehien eramatea erabiliko da lehentasun-irizpide gisa. Ondorio horietarako, zerbitzu-aldian, zerbitzu berezietan eta behin betiko destinoa galtzea ez dakarten beste administrazio-egoera batzuetan emandako denbora joko dira ikastetxeko antzinasun lez.

Beren destinoa ikastetxe batean duten maisu-maistrek, bai xehatu egin delako edo beste ikastetxe batetik guztiz edo neurri batean aldatu direlako, destino horren behin betiko jabe lez izango duten antzinasunen ondorioetarako, jatorrizko ikastetxeari dagokiona edukiko dute. Orain duten destinoaren justu aurrekoa ezabatu zaienekin ere berdin jokatuko da. Behin eta berriro beren lanpostua ezabatu zaien maisu-maistrei dagokienez, pilatze horrek, behin eta berriro ezabatu zaizkien ikastetxeetan behin betiko lez betetako zerbitzuak kontuan hartuko zaizkie.

**Bosgarrena.**– Antzinasunean berdinketa gertatzen bada, maisu-maistren kidegoan karrerako funtzionario lez zerbitzuak betetzen egindako urteak izango dira erabakigarriak. Hori nahiko ez balitz, sartzeko promoziorik zaharrena hartuko da kontuan; eta horren barruan, maisu-maistren kidegoan sartzeko erabili zen aukeraketa prozeduran lortutako puntuaziorik handiena.

b) Participarán de forma voluntaria en el proceso de readscripción previsto en la disposición final segunda bis del Real Decreto 895/1989, de 14 de julio, de conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional décima del Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre (BOE del 6 de octubre), las Maestras y Maestros dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que, en virtud de las adscripciones convocadas por Órdenes de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, obtuvieron un puesto de trabajo para el que no están habilitados y habilitadas, relacionando en su petición todos los puestos del centro para los que estén habilitados y habilitadas y cumplan el requisito de perfil lingüístico.

**Segunda.**– Quedan excluidos y excluidas de la participación en esta convocatoria aquellas Maestras y Maestros que, con posterioridad a la pérdida del puesto de trabajo o a la adscripción convocada por las Ordenes anteriormente citadas, obtuvieron otro destino definitivo por cualquiera de los sistemas de provisión establecidos.

## II.– Prioridades.

**Tercera.**– La prioridad en la obtención de destino vendrá dada por el supuesto en que se encuentran comprendidos y comprendidas, según el orden de prelación en que quedan relacionados y relacionadas en la norma primera de la base I.

**Cuarta.**– Cuando existan varias Maestras y Maestros dentro de un mismo supuesto, la prioridad entre ellos y ellas se determinará por la mayor antigüedad como definitivo en el Centro. A estos efectos se computará, como antigüedad en el Centro, el tiempo de permanencia en comisión de servicios, servicios especiales y otras situaciones administrativas que no hayan supuesto pérdida de destino definitivo.

Las Maestras y Maestros que tengan destino en un Centro por desglose o traslado total o parcial de otro contarán, a efectos de antigüedad como propietarios definitivos y definitivas en el mismo, la referida a su Centro de origen. Igual tratamiento se dará a las Maestras y Maestros cuyo destino inmediatamente anterior les fue suprimido. Para el caso de Maestras y Maestros afectados por supresiones consecutivas de puestos de trabajo, esa acumulación comprenderá los servicios prestados con carácter definitivo en los Centros que, sucesivamente, les fueron suprimidos.

**Quinta.**– En caso de igualdad en la antigüedad decidirá el mayor número de años de servicios efectivos como funcionario o funcionaria de carrera del Cuerpo de Maestras y Maestros y, en último término, la promoción de ingreso más antigua y, dentro de ésta, la mayor puntuación obtenida en el procedimiento selectivo a través del que ingresó en el Cuerpo de Maestras y Maestros.

## III.– Eskabideak.

**Seigarrena.**– Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea bete eta aurkeztu beharko dute, deialdien arau orokorren hemeretzigarren oinarritik hogeita hirugarrenera bitarte xedatutakoari jarraiki.

Euren eskabidean ikastetxeko lanpostuak sartuko dituzte, eta nahitaezkoa izango da deialdien arau orokorretan exijitutako berriarazko eskakizunak betetzea.

Edonola ere, Administrazioak behar diren azalpen eta agiriak eskatu ahal izango dizkie lehiatzaileei, planteatutako zalantza eta erreklamazioak ebazteko.

Aurkeztutako dokumentazioaren egiatasunaren erantzuleak lehiatzaileak eurak izango dira. Agiriaren bat faltsua bada edo manipulaturik badago, lehiatzaileak deialdi honetan parte hartzeko eskubidea galduko du, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Hemeretzigarren oinarrian ezarritako epearen barruan lehiatzaile batek deialdi honetako kidego baterako eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, erregistratutako azken eskabidea baino ez da kontuan hartuko.

## 2.– Lehentasuneko eskubideko deialdia.

Deialdia, alde batetik, azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak aldatutako eta urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko e) idatz zatiak partzialki indargabetutako uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 18. artikulua, eta, bestetik, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak hamargarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen egoeretako batean dauden maisu-maistrak beren destinoa herri edo eskualde jakin batean lortzeko lehentasun-eskubideaz baliatu daitezten.

Hauek dira oinarri-arauak:

## I.– Parte-hartzaileak.

**Lehenengoa.**– Ondorengo idatz-zatietan adierazten diren egoeretariko batean dauden Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, eta lehentasuna izango dute herri jakin batean destinoa lortzeko, behin bakarrik eta lanpostu hori hutsa dagoelako:

a) Administrazio-mailako ebazpen irmoaren indarrez herri batean destinoa lortzeko edo lehendik betetzen zuten lekuan berreskuratzeko eskubidea onartuta dutenek.

b) Herri berebean behin betiko zuten lanpostua ezabatu zaieneko maisu-maistrak. Lanpostua eraldatzea joko da ezabatze kasu lez, baldin eta titularrak lanpostu hori betetzeko azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak aldatu egin duen uztailaren 14ko

## III.– Solicitudes.

**Sexta.**– Las y los que deseen participar en esta convocatoria habrán de cumplimentar y presentar la instancia, conforme a lo dispuesto en las bases decimonovena a vigésimo tercera de las Normas Comunes a las convocatorias.

Incluirán en sus peticiones los puestos del Centro, siendo imprescindible cumplir los requisitos específicos exigidos en las Normas comunes a las convocatorias.

En todo caso, la Administración podrá requerir a las y los concursantes las aclaraciones y documentos necesarios para resolver las dudas y reclamaciones planteadas.

Las y los solicitantes se responsabilizan expresamente de la veracidad de la documentación aportada. En caso de falsedad o manipulación en algún documento, decaerá el derecho a la participación en la presente convocatoria, con independencia de la responsabilidad a que hubiere lugar.

En el supuesto de que una o un solicitante presentara durante el plazo habilitado en la base decimonovena más de una instancia de participación en la presente convocatoria, sólo se tendrá en cuenta la última instancia registrada.

## 2.– Convocatoria de Derecho Preferente.

Convocatoria para que las Maestras y Maestros que se encuentren en alguno de los supuestos a que alude el artículo 18 del Real Decreto 895/1989, modificado por el Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre y derogado parcialmente en el apartado e) por Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre, y aquellos que se contemplan en la disposición adicional décima del Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre, puedan ejercer el derecho preferente a obtener destino en una localidad o zona determinada.

Se registrá por las siguientes bases:

## I.– Participantes.

**Primera.**– Podrán participar en esta convocatoria y tendrán derecho preferente, por una sola vez y con ocasión de vacante, a obtener destino en una localidad determinada, las funcionarias y funcionarios de carrera del Cuerpo de Maestras y Maestros dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que se encuentren en alguno de los supuestos que a continuación se indican:

a) Las y los que, en virtud de resolución administrativa firme, tengan reconocido el derecho a obtener destino en una localidad o recuperarlo donde anteriormente lo desempeñaron.

b) Las Maestras y Maestros a quienes se les hubiere suprimido el puesto de trabajo que desempeñaban con carácter definitivo en la misma localidad. Entre los casos de supresión se comprenderá el de transformación del puesto de trabajo cuando el o la titular

895/1989 Errege Dekretuaren 6. eta 17. artikuluetan ezarritako berariazko baldintzak ez baditu betetzen.

c) Atzerrian dauden ikastetxe publiko espainiarretako maisu-maistrak izan eta ikastetxe horietan izandako atxikitze-garaia igaro delako destino horiek utzi egin behar izan dituzten maisu-maistrak. Maisu-maistra horiei, estatura itzultzen direnean, beren izendapena egin zenean behin betiko destinoa zuteneko herrian lanpostu bat eskuratzeko eskubidea aitortzen die urriaren 31ko 1138/2002 Errege Dekretuak.

d) Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak 4. atalaren bosgarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera, zuten behin-betiko lanpostua galdu duten eta, Maisu-Maistren Kidegoan zerbitzu aktiboaren egoerari eutsiz, Hezkuntza Administrazioan beste lanpostu batera pasatu direnak, betiere Maisu-Maistren lanpostua utzi badute.

Arau honetako edozein egoeratan sartzen diren maisu-maistrek, eskubidea han duteneko herrian gauzatu ahal izango dute eskubide hori; horrez gain, eskatzaileak herrien, espezialitateen eta hizkuntza-eskakizunen aukera egiterakoan hautatutako eskualdeko edozein herritan ere gauzatu dezakete.

Lehiaketa erabaki aurretik herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna gordeko zaie, parte-hartzaileek jarritako lehentasun-hurrenkerara kontuan hartuz.

**Bigarrena.**– Aipatutako egoerei dagokienez, honako hauek izango dira alde aurretiko baldintzak lehentasun-eskubidez baliatzeko:

a) Herriren edo eskualderen batean destinoa hartzeko eskubidea leku horretarako ohiko betetze-prozeduraren bidez zuzen egindako izendapenean oinarritu dadila.

b) Lanpostu hutsa edo ondoriozkoa egon dadila dagokion eskualdeko herrian edo herrietan, baldin eta hori betetzeko legitimaturik badago.

**Hirugarrena.**– Oinarri-arau honetako lehenengo arauan aipatzen diren maisu-maistrek lehentasun-eskubide horretaz baliatu nahi badute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak helburu horretarako egiten dituen deialdi guztietan hartu beharko dute parte, lanpostua eskuratu artean. Ahal duten ikastetxe eta espezialitate guztietarako egingo dute eskubidea eskualdeko herrian edo herrietan. Horrela ez bada egiten eta eurek eska zezaketen lanpostu hutsa edo ondoriozkoa egongo balitz, eskubidea galdu egin dutela ulertuko da. Hori guztia, maisu-maistra horiei buruz azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak

no reúna los requisitos específicos establecidos en los artículos 6 y 17 del Real Decreto 895/1989, de 14 de julio, modificado por el Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre, para el desempeño del mismo.

c) Las Maestras y Maestros de Centros públicos españoles en el extranjero que hayan cesado en los mismos por el transcurso del tiempo para el que fueron adscritos o adscritas y a quienes el Real Decreto 1138/2002, de 31 de octubre, reconoce el derecho a ocupar, a su retorno a España, un puesto de trabajo en la localidad en la que tuvieran su destino definitivo en el momento de producirse su nombramiento.

d) Los que conforme a la disposición adicional quinta, apartado 4, del RD 2112/1998, de 2 de octubre, hayan perdido la plaza docente que desempeñaban con carácter definitivo y pasaron a desempeñar otro puesto en la Administración educativa, manteniendo su situación de servicio activo en el Cuerpo de Maestros, siempre que hayan cesado en ese último puesto.

Las Maestras y Maestros que se encuentren comprendidos y comprendidas en cualquiera de los apartados de esta norma podrán ejercitar este derecho en la localidad de la que les dimana el mismo y/o en cualquiera de las localidades comprendidas en el ámbito de la zona en el orden de petición de localidades, especialidades y perfil lingüístico que el o la solicitante determine.

Previamente a la resolución del concurso se les reservará localidad, especialidad y perfil lingüístico atendiendo al orden de prelación señalado por las y los participantes.

**Segunda.**– Serán condiciones previas, en todos los supuestos anteriores, para ejercer el derecho preferente:

a) Que el derecho a destino en localidad o zona se fundamente en nombramiento realizado directamente para la misma, mediante procedimiento normal de provisión.

b) Que exista puesto de trabajo vacante o resulta en la localidad o localidades de la zona de que se trate, siempre que se estuviese legitimado o legitimada para su desempeño.

**Tercera.**– Las Maestras y Maestros a que se refiere la norma primera de la presente base, si desean hacer uso de este derecho preferente, y hasta que alcancen el mismo, deberán acudir a todas las convocatorias que, a estos efectos, realice el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, solicitando todos los centros y especialidades para las que estén facultados o facultadas de la correspondiente localidad o localidades de la zona, pues, en caso contrario, de existir vacante o resulta a la que hubieran podido tener acceso, se les considerará decaídos o decaídas en su derecho. Todo ello sin perjuicio de lo que, con re-

aldatu egin duen uztailearen 14ko 895/1989 Errege Dekretuak xedatzen duena errespetatuz egingo da.

**Laugarrena.**– Beharrezko egokitzapena ez duten arren, oraindik ere zenbait plazetan dirauten maisu-maistrek, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, lehentasuna izango dute behin betiko langile diren ikastetxearen inguru berean destinoa lortzeko, eta azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak aldatu egin duen uztailearen 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 18. artikulua ezarritako hobespenen artean sartzen dira, b) taldean hain zuzen. Lehentasun-eskubide hori deialdi honetako lehen, bigarren eta hirugarren oinarrietan ezarritakoari jarraiki erabili ahal izango dute.

Beti ere, lehentasun-eskubide hori behin betiko langileak diren ikastetxearen herrian erabili beharko dute nahitaez, eta beren eskabidea inguru horretako beste edozein herritara zabaldu ahal izango dute.

Lehentasun-eskubide hori erabiltzen duten maisu-maistrek eskaera egitean deialdi honetako zazpigarren oinarrian ezarritakoa bete beharko dute; eskubide hori gauzatzeko lehentasuna jarraian ezarritako ditugun bosgarren eta seigarren oinarrietan xedaturikoak finkatuko du. Baremoaren arabera hautagaiari aplikatuko zaion puntuazioa deialdi honetan parte hartzean duen destinoaren behin betiko jabea izategatik dagokiona izango da.

## II.– Lehentasunak.

**Bosgarrena.**– Eskualde edo herri baterako lehentasuneko eskubideaz baliatzeko lehentasuna maisu-maistrei dagokien egoerak finkatuko du; lehenengo arauan duten lehentasun-hurrenkeraren arabera egingo da hori, deialdi honetako I. eranskinetako laugarrenarekin bat etorritik.

Egoera batean hainbat maisu-maistra daudenean, baremoa aplikatzerakoan puntu gehien lortzeak finkatuko du beren arteko lehentasuna.

**Seigarrena.**– Lehentasun-eskubidearen ondorioz herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna lortu ondoren, gainerako parte-hartzaileekiko lehian eskuratu ahal izango dute destinoa edo ikastetxea. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarriko 3. idatzatiaz eta urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuan aurreikusitako estatu-mailako lehiaketarako deialdia. Eta horri buruzko deialdia agindu honetako 3. zenbakian iragartzen da; lehentasuna ezarritako baremoaren arabera finkatuko da.

ferencia a estos Maestras y Maestros, se dispone en el Real Decreto 895/1989, de 14 de julio, modificado por el Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre.

**Cuarta.**– Las Maestras y Maestros que aún permanezcan en plazas para las que no cuenten con la preceptiva habilitación, de conformidad con la Disposición Adicional décima del Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre, tendrán derecho preferente a obtener destino en la localidad o la zona a la que pertenece el centro del que son definitivos o definitivas, siendo incluidos e incluidas dentro de las preferencias establecidas en el artículo 18 del Real Decreto 895/1989, de 14 de julio, modificado por el Real Decreto 1664/1991, de 8 de noviembre, en el grupo b) de aquel precepto. Tal derecho lo ejercerán con sujeción a lo que se establece en las bases primera, segunda y tercera de esta convocatoria.

En todo caso, deberán ejercitar este derecho obligatoriamente en la localidad en la que radique el centro en el que son definitivos o definitivas, pudiendo extender su petición a cualquier otra u otras localidades de la zona.

Las Maestras y Maestros que hagan uso de este derecho preferente deberán atenerse, al formular su solicitud, a lo previsto en la base séptima de esta convocatoria, y la prioridad para hacerlo efectivo vendrá dada por lo dispuesto en las bases quinta y sexta que a continuación se establecen, siendo la puntuación aplicable, según baremo, aquella que corresponde a su condición de propietario definitivo o definitiva del destino desde el que participa en esta convocatoria.

## II.– Prioridades.

**Quinta.**– La prioridad para hacer efectivo el derecho preferente a una localidad o zona determinada vendrá dada por el supuesto en que se encuentren comprendidos o comprendidas, según el orden de prelación en que van relacionados o relacionadas en la norma primera, en concordancia con la cuarta, de la base I de esta convocatoria.

Cuando existan varios Maestras y Maestros dentro de un mismo supuesto, la prioridad entre ellos y ellas se determinará por la mayor puntuación derivada de la aplicación del baremo.

**Sexta.**– Obtenidas localidad, especialidad y perfil lingüístico como consecuencia del derecho preferente, el destino a Centro concreto lo alcanzarán en concurrencia con los/as participantes en el concurso previsto en la Disposición Adicional sexta, apartado 3, de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación y el Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre y cuya convocatoria se anuncia con el número 3 de la presente Orden, determinándose su prioridad de acuerdo con el baremo establecido.

## III.– Eskabideak.

**Zazpigarrena.**– Lehentasun-eskubidea horren jatorriko herrian erabili behar da derrigorrez eta, hala badagokio, inguruko beste herri batean edo batzuetan, gaituta dagoen espezialitate guztietan; aukeran, gainera, espezialitate hauetan erabil dezakete: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren kurtsoetako Pedagogia Terapeutikoa eta Entzumena eta Hizkuntza, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Zereginen Ikaskuntzarako Geletan eta Helduen Hezkuntzako lanpostuetan, beti ere herri bereko edo inguruko herrietakoak badira. Horretarako hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eskuratu ahal izango duten instantzia bete beharko dute, eredu ofizialaren arabera eta halaber interneten helbidean: [www.hezkuntza.ejgv.net](http://www.hezkuntza.ejgv.net). Kasuotan, eskabidea aurkeztu beharko dute aipatu Ordezkaritzetan eskatzen diren gainerako merituekin batera. Era berean, aukera izango dute eskabidea interneten helbidean ([www.irakasle.net](http://www.irakasle.net)) egiteko, Ordezkaritzetan erregistratu beharrik gabe (metodo horren bidez, deialdi honen eskabideak aurkezteko epearen amaierako datan, sisteman sartzeko klabeak dauzkaten EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Maisuen kidegoko funtzionarioek bakarrik ahal izango dute instantzia bete).

Bertan, horretarako prestatutako lekuan, instantziarekin batean doazen argibideetan jartzen duenaren arabera, eskubidea zein herritan duten adierazi beharko dute, eskubidearen herriaren kodea jarritz, eta, beste herri edo herriak eskatzea gertatuz gero, eskubidea gauzatu nahi duten eskualdearena jarritz. Gaituta dauden espezialitate guztiak eta hizkuntza-eskakizunak adieraziko dituzte lehentasun-hurrenkerari jarraituz. DBHko lehen eta bigarren ikasturteetako Pedagogia Terapeutikoa eta Entzumena eta Hizkuntza eskatzen, horiek adierazi beharko dituzte. Lehentasun hori kontuan hartuko da herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna/derrigortasun-data erreserbatzeko.

Ikastetxe jakin bat lortzeko, instantzian horretarako dagoen lekuan zera jarri beharko dute beren lehentasunen arabera: eskubidea duteneko herriko ikastetxe guztiak eta, hala badagokio, eskualde horretako nahi dituzten herri guztietako ikastetxeak; herria eskatuz gero, lanpostu hutsak dauden edozein ikastetxera destinatuko zaio; ikastetxe konkretuak eskatuz gero, herrietako bloke homogeneotan taldekatu beharko dira. Eskubidea duten herriko ikastetxe guztiak eskatzen ez badira, eta aukeran eskatutako herriko edo herrietako ikastetxe guztiak eskatzen ez badira, horietakoren ba-

## III.– Solicitudes.

**Séptima.**– El derecho preferente debe ejercitarse necesariamente a la localidad de la que dimana el mismo y, en su caso, a otra u otras localidades de la zona, por todas las especialidades para las que se está habilitado o habilitada; además con carácter optativo, pueden ejercerlo para las especialidades de Pedagogía Terapéutica y Audición y Lenguaje de los dos primeros cursos de la Educación Secundaria Obligatoria, de Pedagogía Terapéutica en Aulas de Aprendizaje de Tareas en Centros públicos de Enseñanzas Medias y para puestos de Educación de Personas Adultas, de la misma localidad o localidades de la zona; a estos efectos deberán cumplimentar instancia, conforme al modelo oficial, que será facilitada a los interesados e interesadas en las Delegaciones Territoriales de Educación, así como en la dirección de internet: [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net). En estos casos, deberán presentar la solicitud en las citadas Delegaciones junto con el resto de los méritos requeridos. Asimismo, podrán efectuar la solicitud en la dirección de internet [www.irakasle.net](http://www.irakasle.net), sin necesidad de su registro en las Delegaciones (por este método sólo podrán cumplimentar la instancia las funcionarias y funcionarios del cuerpo de Maestras y Maestros dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del País Vasco que, a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes de la presente convocatoria, dispongan de las claves de acceso al sistema).

En ella deberán consignar en el lugar correspondiente según las instrucciones que a la misma se acompañan, el código de la localidad de la que les dimana el derecho y, en caso de pedir otra u otras localidades habrán de consignar el código de la zona en la que solicitan ejercer el derecho. Asimismo cumplimentarán por orden de preferencia todas las especialidades y perfiles lingüísticos para los que estén habilitados y habilitadas; de solicitar especialidades de Pedagogía Terapéutica y Audición y Lenguaje correspondientes a los dos primeros cursos de la Educación Secundaria Obligatoria, deberán reseñar las mismas. Esta preferencia será tenida en cuenta a efectos de reserva de localidad, especialidad y perfil lingüístico-fecha de preceptividad.

Para la obtención de centro concreto deberá relacionar, según sus preferencias, en el lugar señalado al efecto en la instancia todos los Centros de la localidad de la que les procede el derecho y, en su caso, todos los Centros de las localidades que desee de la zona; de pedir localidad será destinado o destinada a cualquier Centro de la misma en que existan vacantes; de pedir Centros concretos deberán ir agrupados por bloques homogéneos de localidades. De no solicitar todos los Centros de la localidad de la que les dimana el derecho, y todos los Centros de la loca-

tean lanpostu hutsen bat baldin badago administrazioak hara destinatuko ditu.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea bete eta aurkeztu beharko dute, deialdien arau orokorren hemeretzigarren oinarritik hogeita hirugarrenera bitarte xedatutakoari jarraiki.

Edonola ere, Administrazioak behar diren azalpen eta agiriak eskatu ahal izango dizkie lehiatzaileei, planteatutako zalantza eta erreklamazioak ebazteko.

Aurkeztutako dokumentazioaren egitasunaren erantzuleak lehiatzaileak eurak izango dira. Agiriren bat faltsua bada edo manipulaturik badago, lehiatzaileak deialdi honetan parte hartzeko eskubidea galduko du, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Hemeretzigarren oinarrian ezarritako epearen barruan lehiatzaile batek deialdi honetako kidego baterako eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, erregistratutako azken eskabidea baino ez da kontuan hartuko.

Lehentasun-eskubidea administrazioari ebazpen irmoaren bidez gauzatu dutenek, instantziarekin batera deialdiarako arau komunitario hogen hiru arau arauan aditzera ematen diren agiriez gain, herri edo eskualde jakin baten aldeko lehentasun-eskubideaz baliatzeko duten eskubide-egiaztagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

### 3.- Lehiaketaren deialdia.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeko 23. artikuluan jasotako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko hezkuntzako irakasleen kidegoen lekualdaketa-lehiaketaren deialdia.

Hauek dira oinarri-arauak:

#### I.- Ezaugarriak.

**Lehenengoa.**– Ikastetxeetan lanpostuak espezialitateen eta hizkuntza-eskakizunen arabera betetzean datza lehiaketa.

#### II.- Parte-hartzaileak.

**Bigarrena.**– Edozelako administrazio-egoeratan dauden eta destinoa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-eremuan duten maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute lehiaketan; suspentsoan daudenek, egoera horretan dirauten bitartean, ezingo dute parterik hartu.

Euren jatorrizko lanpostua beste Autonomia Elkartean daukatenean zerbitzu-eginkizunen bidez Euskal Autonomia Elkartean lanean ari direnek ezingo dute parterik hartu.

lidad o localidades que opcionalmente ha solicitado, caso de existir vacante en alguno de ellos se les destinará libremente por la Administración.

Las y los que deseen participar en esta convocatoria habrán de cumplimentar y presentar la instancia, conforme a lo dispuesto en las bases decimonovena a vigésimo tercera de las Normas Comunes a las convocatorias.

En todo caso, la Administración podrá requerir a las y los concursantes las aclaraciones y documentos necesarios para resolver las dudas y reclamaciones planteadas.

Las y los solicitantes se responsabilizan expresamente de la veracidad de la documentación aportada. En caso de falsedad o manipulación en algún documento, decaerá el derecho a la participación en la presente convocatoria, con independencia de la responsabilidad a que hubiere lugar.

En el supuesto de que una o un solicitante presentara durante el plazo habilitado en la base decimonovena más de una instancia de participación en la presente convocatoria, sólo se tendrá en cuenta la última instancia registrada.

A la instancia se acompañará, en el caso de aquéllos y aquéllas que ejerzan el derecho preferente en virtud de resolución administrativa firme, además de la documentación relacionada en la norma vigésimo tercera de las normas comunes a las convocatorias, copia del documento que acredite su derecho a ejercer el derecho preferente a una localidad o zona determinada.

### 3.- Convocatoria de concurso.

Convocatoria del concurso de traslados previsto en el artículo 23 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria.

Se regirá por las siguientes bases:

#### I.- Características.

**Primera.**– El concurso consistirá en la provisión de puestos en centros, por especialidades y perfiles lingüísticos.

#### II.- Participantes.

**Segunda.**– Podrán tomar parte en el concurso las funcionarias y funcionarios de carrera del Cuerpo de Maestras y Maestros con destino en el ámbito de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que se encuentren en cualquier situación administrativa, excepto los suspensos mientras permanezcan en dicha situación.

No pueden participar las y los que estén desempeñando sus funciones en virtud de comisión de servicios, cuando su destino de origen lo tengan en otra Comunidad Autónoma.

Behin betiko destinoa duten maisu-maistrek parte hartu ahal izango dute, ikasturte hau amaitzerakoan azken destinoa hartu zutenetik, gutxienez, bi urte pasa badira.

Borondatezko eszedentzian eta suspentso-egoeran dauden maisu-maistren kidegoko funtzionarioek parte hartu ahal izateko beharrezko izango da, eszedentziara pasa zirenetik edo diziplinazko zigorrari zegokion denboraldia bukatu zenetik hurrenez hurren, ikasturte honen amaiera arte bi urte igarota egotea. Gainera, beti ere, bai borondatezko eszedentzia bai suspentso-egoera hartu zutenean destinoa eduki behar zuten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-eremuan.

Borondatezko eszedentzian daudenek, gainera, jarduneko zerbitzura itzultzeko behar diren baldintzak bete beharko dituzte.

**Hirugarrena.**– Ondoren adierazten diren arrazoirien batengatik behin betiko destinorik ez duten eta behin-behineko destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan duten maisu-maistrek nahitaez parte hartu beharko dute lehiaketan:

- 1.– Diziplinazko espedientean erabaki irmoa.
- 2.– Epaia beteta izatea edo errekurtsioa ebatzita.
- 3.– Behin betiko betetzen zuten lanpostua ezabatua.
- 4.– Behin-behineko destinoz birlaneratuta.
- 5.– Nahitaezko eszedentzia.
- 6.– Zigorra bete ondoren, eginkizun-gabetzea.
- 7.– Arrazoi parekoak, baldin eta behin betiko zuten lanpostua galtzea badakarte; arrazoi horien artean, atzerriko irakasle lanpostuetan jarduteko zuten denbora igarotzea dago.

**Laugarrena.**– Jarduneko zerbitzuan egon bai baina egundo behin betiko destinorik lortu ez duten Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko behin-behinekoek halabeharrez hartu beharko dute parte lehiaketa honetan.

**Bosgarrena.**– Hirugarren arauko 1. eta 4. zenbakietan aipatzen diren egoeretan dauden maisu-maistrek eta oinarri-arau honetako laugarren arauan aipatzen direnek, baldin eta ez badute lehiaketan parte hartzen, Autonomia Erkidegora destinatuko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; horretarako, lanpostu hutsak egon beharko dira eta lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte. Destino hori lortzeak interesatuen eskarien

Las Maestras y Maestros que desempeñen destino con carácter definitivo podrán participar siempre que a la finalización del presente curso escolar hayan transcurrido al menos dos años desde la toma de posesión del último destino.

Las funcionarias y funcionarios del Cuerpo de Maestros y Maestras que se encuentren en la situación de excedencia voluntaria por interés particular, así como los suspensos, que, en ambos casos, cuando accedieron a dichas situaciones tuvieran destino en el ámbito de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, podrán participar siempre que al finalizar el presente curso escolar hayan transcurrido los dos años desde que pasaron a aquella situación o dos años desde la finalización del periodo de duración de la sanción disciplinaria, respectivamente.

Las y los excedentes voluntarios, además, deben reunir las condiciones para reingresar al servicio activo.

**Tercera.**– Están obligados y obligadas a participar en el concurso aquellas Maestras y Maestros con destino provisional en la Comunidad Autónoma del País Vasco que carezcan de destino definitivo a consecuencia de:

- 1.– Resolución firme de expediente disciplinario.
- 2.– Cumplimiento de sentencia o resolución de recurso.
- 3.– Supresión del puesto de trabajo que desempeñaban con carácter definitivo.
- 4.– Reingreso con destino provisional.
- 5.– Excedencia forzosa.
- 6.– Suspensión de funciones, una vez cumplida la sanción.
- 7.– Causas análogas que hayan implicado la pérdida del puesto de trabajo que desempeñaban con carácter definitivo; entre otras el transcurso del tiempo para el o la que fueron adscritos o adscritas a puestos docentes en el extranjero.

**Cuarta.**– Asimismo están obligados y obligadas a participar en este concurso las y los provisionales dependientes de Departamento de Educación, Universidades e Investigación de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que, estando en servicio activo, nunca han obtenido destino definitivo.

**Quinta.**– Las Maestras y Maestros comprendidos y comprendidas en los supuestos a que hacen referencia los números 1 y 4 de la norma tercera y aquellas y aquellos a quienes alude la norma cuarta de la presente base que no participen en el concurso serán destinados y destinadas, de existir vacantes, por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, a puesto de la Comunidad Autónoma, siempre que cumplieran los requisitos exigibles para

arabera lortutakoek besteko izaera eta eraginak izango ditu.

Lekualdatze-lehiaketan parte hartu, baina, eskutako destinorik lortu ez dutenen kasuan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak behin-behineko gisa dauden lanpostuaren lurralde historikoan emango die destinoa, baldin eta lanpostua betetzeko baldintzak betetzen badituzte eta lanpostu hutsak baldin badaude.

Ez da bidezkoa izango ofizioz esleitzea helduen hezkuntzako lanpostuak, DBHko lehen eta bigarren kursoetako lanpostuak, ez eta ikastetxeetan zereginak ikasteko geletako lanpostuak ere.

**Seigarrena.**— Epaia bete dutelako, errekurtoa ebatzi delako, eurak titularrak zireneko lanpostua ezabatu delako edo atzerriko irakasle-lanpostu espainiarretan jarduteko zuten denbora igaro delako behin-behineko destinoa duten maisu-maistrek lehiaketan parte hartzen ez badute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere kasa destinatuko ditu, aurreko arauan adierazten den moduan.

Lehiaketan parte hartzeko dagoen obligazioa bete eta lehenengo sei deialdietan eskatutako destinoa lortzen ez duten maisu-maistrek ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak destinatuko ditu bere kasa, aurreko idatz-zatian esandako moduan.

**Zazpigarrena.**— Nahitaezko eszedentzian egondakoek ez badute lehiaketan parte hartzen, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 61. artikuluko 1.b) idatz-zatian jasotzen den borondatezko eszedentzia-egoeran deklaratuko dira.

Parte hartu bai baina ez badute eskatutako destinorik lortzen lehenengo hiru deialdietan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak destinatuko ditu bere kasa; oinarri-arau honetako bosgarren arauan adierazten den prozedura erabiliko du horretarako.

**Zortzigarrena.**— Oinarri-arau honetako hirugarren arauko 6. zenbakian jasotako egoeran dauden maisu-maistrek ez badute parte hartzen lehiaketan, interes partikularra dela-eta borondatezko eszedentzian deklaratuko dira.

Parte hartu bai baina ez badute eskatutako destinorik lortzen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak destinatuko ditu bere kasa aurreko idatz-zatietan esandako moduan.

**Bederatzigarrena.**— Ofiziozko esleipena, aurreko arauari jarraiki, ez da bidezkoa izango baldin eta maisu-maistrek uztailaren 14ko 895/1989 Errege

su desempeño. La obtención de este destino tendrá el mismo carácter y efectos que los obtenidos en función de las peticiones de los/as interesados e interesadas.

Aquellas y aquellos que tomando parte en el Concurso de Traslados no obtengan destino de los solicitados serán destinados y destinadas, de existir vacantes, por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, a puesto del Territorio Histórico en que presta servicios con carácter provisional, siempre que cumpliera los requisitos exigibles para su desempeño.

No procederá la adjudicación de oficio a puestos de los dos primeros cursos de la Educación Secundaria Obligatoria, ni de Educación de Personas Adultas, ni a las aulas de aprendizaje de tareas.

**Sexta.**— Las Maestras y Maestros con destino provisional como consecuencia de cumplimiento de sentencia o resolución de recurso o de supresión del puesto de trabajo del que eran titulares, o del transcurso del tiempo para el que fueron adscritos o adscritas a puestos de trabajo docentes españoles en el extranjero, de no participar en el concurso serán destinados o destinadas libremente por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la forma en que se dice en la norma anterior.

Aquellas y aquellos que cumpliendo con la obligación de concursar no obtengan destino de los solicitados en las seis primeras convocatorias serán, asimismo, destinados o destinadas libremente por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la forma antes dicha.

**Séptima.**— Las y los procedentes de la situación de excedencia forzosa en el caso de no participar en el concurso, serán declarados o declaradas en la situación de excedencia voluntaria contemplada en el apartado 1.b) del artículo 61 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

De participar y no alcanzar destino de los solicitados en las tres primeras convocatorias serán destinados o destinadas libremente por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación siguiendo el procedimiento indicado en la norma quinta de la presente base.

**Octava.**— Las Maestras y Maestros comprendidas en el supuesto contemplado en el número 6 de la norma tercera de la presente base, de no participar en el concurso serán declarados o declaradas en la situación de excedencia voluntaria por interés particular.

De participar y no alcanzar destino de los solicitados serán destinados o destinadas libremente por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la forma que se expresa anteriormente.

**Novena.**— En todo caso no procederá la adjudicación de oficio conforme a las normas anteriores cuando las Maestras y Maestros hubieran obtenido

Dekretuaren eremuan sartu gabeko lanpostuak betetzeko lehiaketan edo prozeduren bidez destinoa lortu badute.

**Hamargarrena.**– Praktiketako funtzionarioen parte hartzea.

1.– Ondorengoek hartu behar dute derrigorren parte:

Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren Kidegora sartzeko 2008ko azaroaren 28ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozeduran aukeratuak izan ziren eta ikasturte honetan praktika-fasea egiten ari diren izangaiek.

Hautatutako izangai horiek behartuta daude ikasturte honetan eta hurrengoetan parte hartzera, euren behin betiko lehen destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeetan lortu arte.

2.– Zer espezialitaterako aukeratuak izan diren, horri dagozkion lanpostuak bakarrik eskatu ahal izango dituzte.

3.– Destinoak esleitzeko, praktiketako funtzionario izendatzeko aginduan esleitzen zaien zerrenda-hurrenkerako zenbakia kontuan hartuko da.

4.– Aukeratutako izangai horiek eskabiderik aurkezten ez badute, edo, aurkeztu arren, nahiko lanpostu huts eskatzen ez badute, libreki esleituiko zaie behin betiko destinoa, hautatuak izan zireneko espezialitateen eta hizkuntza-eskakizunen arabera bete ahal dituzten lanpostuetan, eta aurreko ikasturtean zerbitzuak eman dituzten lurraldean dauden ikastetxeetan.

Behin betiko destinorik lortzen ez badute, behin-behineko destino egoeran geldituko dira 2009-2010 ikasturtean zerbitzuak eman dituzten lurralde historikoan.

